

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

93/2019 Foru Agindua, apirilaren 12koa, zeinak behin betiko onesten baituen Murgiako 7 poligonoko 266, 267 eta 268 partzelen hiri antolamenduko plan bereziaren espedientea

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. 2017ko abenduaren 19an, Alkatzaren 428/2017 Dekretuaren bitartez, erabaki zen hasierako onespena ematea Murgiako 7 poligonoko 266, 267 eta 268 partzelen hiri antolamenduko plan bereziaren espedienteari, eta jendaurrean jartzea 20 egun baliodunez, eta, horretarako, iragarkiak argitaratu ziren 2017ko abenduaren 29ko ALHAOn (147. zenbakia), eta 2017ko abenduaren 26ko El Correo egunkarian.

Bigarrena. Jendaurrean egoteko epean ez zen alegaziorik aurkeztu. Udalak behin-behinean onartu zuen espedientea 2018ko otsailaren 8an, eta Foru Aldundiari igorri zion, behin betiko onar zezan. Espedientea 2018ko martxoaren 7an sartu zen Foru Aldundian.

2018ko martxoaren 21eko irteera data duen idatzi baten bitartez, Ingurumen eta Hirigintza Sailak Zuiako Udalari jakinarazi zion ez zuela aldatetaren ingurumen ebaluazio estrategikoa izapidetu eta ez zuela izapide hori egiteko betebeharririk ez izatearen txostenik aurkeztu, eta, horrenbestez, ezin zela espedientea izapidetu, harik eta nahitaezko ingurumen ebaluazio estrategikoa bete arte.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 281/2018 Foru Aginduaren bidez (2018ko urriaren 15eko ALHAO, 118. zenbakia), aldeko ingurumen txosten estrategikoa eman zen, Ingurumen Ebaluazioaren 21/2013 Legeak ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. 2019ko otsailaren 21ean, Zuiako udalbatzak behin-behineko onespena eman zion espedienteari, behin ingurumen txosten estrategikoak ezarritako ingurumen baldintzatzaileak txosten teknikoan sartuta.

Zuiako Udalak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Nagusian 2019ko martxoaren 6an sartu zituen ingurumen ebaluazio estrategikoa izapidetzeko agiri osagarriak igorri zituen.

II. OINARRIAK

Lehena. Hiri antolamenduko plan bereziaren helburua da hiri lurzoruan dauden Murgiako (Zuia) 7 poligonoko 266, 267 eta 268 partzelen antolamendu xehatua aldatzea, komunitate ekipamenduko tokiko sistema kalifikazio xehatua duen partzela birkokatzeke.

Era horretan, egungo planaren arabera komunitate ekipamenduko tokiko sistema kalifikazio xehatua duen 268 partzelak bizitegi azpizona kalifikazio xehatua izango du, eta egun bizitegi lurzorua diren 266 eta 267 partzelen zati batek komunitate ekipamenduko tokiko sistema kalifikazioa izango du, eta, era horretan, hirigintza eraikigarritasuna mantenduko da.

Bigarrena. Agiri teknikoaren arabera, aldaketa egitearen arrazoia da ekipamendua hirigunetik gertuago eta leku irisgarriago batean kokatzea.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 281/2018 Foru Aginduaren bidez emandako ingurumen txosten estrategikoan (2018ko urriaren 15eko ALHAO, 118. zenbakia), zenbait ingurumen baldintzatzaile ezarri ziren eta horiek egokiro jaso dira hirigintza dokumentuan.

Laugarrena. Agiri teknikoa aztertu ondoren, teknikari sinatzaileak uste du behar bezala justifikatu direla egin nahi den aldaketaren onura eta egokitasuna.

Proposatutako plangintza figuraren jatorriari dagokionez, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkdiegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 70. artikuluan eta lege hori garatzeko premiazko neurriei buruzko 105/2008 Legeko 30. artikuluan xedatutakoa. Horien arabera, hiri antolamenduko plan berezi baten bidez plan orokorreko hirigintza lurzoruaren antolamendu xehatua alda daiteke.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onespina ematea Murgiako 7 poligonoko 266, 267 eta 268 partzelen hiri antolamenduko plan bereziaren espedienteari.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 12a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO